

**FUNTSEZKO JARDUERAK**

Internetera konektatzeko aukera eduki beharko da. Hau derrigorrezkoa izango da, eguneroko albisteak edota informazioa eguneratuta egoteko. Aplikazioa aurrera doanean, “off-line” funtzioa aurkeztuko dugu. Aplikazio hau erabiltzeko, beharrezkoa izango da mugikor bat edukitzea. Mugikor horrek “iOS” edo “Android” sistema eduki beharko du aplikazioak funtzionatu ahal izateko. Horrez gain, aplikazioa deskargatzeko espazioa eduki beharko du eta sistema eragileak eskatzen duen beharrezko baldintzak bete. Gainera, gazteek aplikazio hau erabiliko dute, eskaintzak edukitzeko edo informazio interesgarri bat behar badute. Hainbat, zerbitzurekin kolaboratuko ditugu informazio multzo handi bat eduki ahal izateko.